



OLABERRIAN GARRAIO PUBLIKOAZ HAUSNARTZEKO PROZESUA, 2020

OLABERRIA ERDIGUNEA

1. LAN SAIOAREN MEMORIA

EGUNA	2020-09-17	ORDUA	18:30
PARTAIDE KOPURUA	9 herritar (4 emakume eta 5 gizon) eta Aztikerreko 2 teknikari.		
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">- Olaberriako herritarren mugikortasun ohituren diagnosiaren itzulketa egin- Eskola komunitatearen mugikortasun beharrak azaldu- Herritarren balorazioa eta ondorioak konpartitu		



1- SARRERA:

Aitor Urkiola mugikortasun zinegotziak ongi etorria eman die gerturatutako guztiei eta hausnarketa prozesuaren kokapena burutu du. Prozesuaren helburua da, Olaberriako herritarren mugikortasun beharrak ezagutzea eta garraio publikoaren hobekuntza bat emateko proposamen zehatza lantzea.

Azaldu du prozesuaren dinamizazioaz Aztiker Soziologia Ikergunea ari dela arduratzen, eta bi teknikariak aurkeztu ditu: Susana Martinez eta Xabi Luke.

Aztikerreko teknikariak prozesua zein unetan aurkitzen den azaldu jarraian. Ekainean herritarrei burututako inkestaren ostean, orain, bilera erronda honekin lortutako ondorioak konpartitu nahi dira eta herritarren artean ondorioak eta kontsentsuak aurkitu.

Horretarako, lehenik, gaur egungo mugikortasun eskaintza azalduko da, eta gero inkestatik lortutako herritarren mugikortasun ohitura eta eskaerak aurkeztuko dira. Herritarren aurkezpena errazago jarrai dezaten, bakoitzari laburpen eskema bat banatu zaio.

2- GAUR EGUNGO ESKAINTZA

Lortutako ondorioen eta beharrianaren konparaketa bat burutzeko, lehenik, gaur egun Olaberriako garraio publikoaren eskaintza zein den errepasatu da. Hiru linea pasatzen dira Olaberriatik, bi Ihurretik, eta bakarra erdigunetik. Ez dago Ihurre eta erdigunea konektatzen dituen linearik.

- **GO 01- Zegama - Olaberria (Ihurre) - Beasain- Ordizi**
 - o Ast-ost: 30 minuturo
 - o Lar-Ig: 60 minuturo

- **GO 24E- Olaberria (erdigunea) - Lazkao**
 - o Ast-ost: 7:50 – 14:15 – 16:50
 - o Lar-Ig: 10:45 - 12:45 - 16:45 - 18:45

- **GO 41G- Zegama - Olaberria (Ihurre) - Beasain- Ordizi**
 - o Larunbata: 23:45 -04:00 artean, 3 bus norabide bakoitzean



3- GALDETEGIAREN ONDORIOAK

Jarraian Aztikerreko teknikariak galdetegiaren emaitzak PPT aurkezpen baten bidez lagunduta aurkeztu ditu.

Lehenik galdetegia bete duten herritarren **ezaugarri soziodemografikoak** eman dira, laburtuz:

- Guztira 93 galdetegi jaso dira
- Galdetegia bete dutenen artean, %62,2 emakumezkoa izan da.
- %39,6ak 40 eta 64 urte bitartean ditu., eta %27,5ak 65 urte baino gehiago
- %52,7a erdigunean bizi da eta %41,9a Ihurren
- %57ak euskaraz bete du inkesta.

Gero, herritarren **garraio ohiturari** dagokionez emaitzak honela laburtu dira:

- Auto pribatua erabiltzen du egunerokoan %61,3ak, eta garraio publikoaren erabiltzaileak %23,7a dira.
- Auto pribatuaren erabilera erdigunean(%71,4) Ihurren (%48,7) baino handiagoa da, eta garraio publikoaren arabera alderantziz.
- Herritarren %13ak dio egunero erabiltzen du garraio publikoa, eta %42,4ak noizean behin.
- Erdiguneko herritarren %65,7ak garraio publikoa aisialdirako erabiltzen du eta %40ak erosketak egiteko.
- Ihurren, %50ak erosketak egiteko erabiltzen du eta %29,4ak aisialdirako.



- Ibilbide nagusiei dagokionez, Ihurren %91,2ak Beasain du helmuga garraio publikoa erabiltzen duenean.
- Erdigunean, %48,6ak Lazkaora joateko erabiltzen du eta %45,7ak Beasainera joateko.
- Eguneroko joan etorriak aintzat hartuta, astean zehar erabiltzen da bereziki garraio publikoa, asteburuetan gutxiago. Azpimarratzekoa da astearte eta asteazkenetan dagoen erabilera.
- Ordu-tegiari dagokionez, 08:00 - 12:00ak eta 16:00-18:00ak artean kontzentratzen dira joaneko bidaia gehienak. Itzulerak aldiz, 10:00-14:00ak eta 16:00-22:00ak artean.

Ondoren, inkesta erantzun duten herritarren **garraio eskaera** zein den azaldu da:

- Herritarren %58ak dio, garraio publiko zerbitzua handitu balitz gehiago erabiliko lukeela, eta %30,7ak zerbait gehiago erabiliko lukeela esan du.
- Egunari dagokionez, astegunetan handiagoa da eskaera, astearte, asteazken eta ostiraletan bereziki.
- Eta ordu-tegiari dagokionez 16:00 eta 18:00 arteko tartean dago eskaera esanguratsuen, galdetegi erantzun dutenen %46,2ak erabiliko luke tarte horretan.

Bukatzeko, Olaberriko **eskolako komunitatearekin** egindako bileratik garraioari begira identifikatutako beharrak azpimarratu dira.

- Egokitze faseetarako zerbitzua areagotzea
- Arratsaldeko zerbitzua eskola ordua bukatzen denetik, jolas denborak irauten duen arte (16:15-18:30 artean)
- Lazkaoren gertutasuna aintzat hartuta, zerbitzua egokitzeak/areagotzea
- Eskola irteerak edo txangoak egiteko erraztasun handiagoa
- Kotxerik ez duten irakasleek (praktikaldian daudenak maiz) garraio publikoan iristeko aukera izatea

4- HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Parte hartzaileak bi taldetan banatuta talde hausnarketa burutu dute. Lehenik eskatu zaie proposatzeko, norbere egoera pertsonala aintzat hartuta, garraioaren zein aldaketak hobetuko lukeen bere eguneroko bizitza, hau da, zein ibilbide eta zein ordu-tegitan erabiliko luketen aukera izanez gero garraio publikoa.

Hauek izan dira jasotako erantzunak:

- Ihurre, erdigunea eta Errekaldetik pasako litzatekeen zerbitzua goizez.
- Erdigunetik Beasainera 08:00ak inguruan eta egueridko ordu-tegian itzulera. Astean zehar.
- 06:30 inguruan Beasainera eta 14:00 edo 15:00ak aldera itzuli. Ihurretik edo Lazkaotik antzekoa da ibilbidearen iraupena.
- Asteburuetan Goierriko herrietara joateko
- Goizez 08:00ak inguruan Beasaineko norantzan eta 14:30etan itzulera.
- Ihurre eta erdigunea arratsaldeko ordu-tegian
- Ihurre eta erdigunea lotzeko lehen martxan zegoen zerbitzua berriz ere berreskuratzea
- Eskaripeko zerbitzu bat.



Ondoren, taldekideen behar pertsonalak ezagututa eta herritarrek inkestaren bitartez emandako informazio kontuan izanik, hobekuntza proposamenak zehazteko eskatu zaie taldeei. Eta gero, plenarioan talde bakoitzak egindako proposamenak elkarbanatu dira, honako aukera ezberdinak ezarri dituzte taldeek:

- Ibilbide zirkularra egingo duen linea (garai batean zegoenaren antzera) Olaberria (erdigunea), Olaberria (Ihurre), Beasain eta Lazkao lotuz. (eta Ordizirekin lotzea ere aukera bat izan daiteke)
- GO 01 Zegama Beasain lineak Ihurren geldialdia egitean erdigunera igo eta berriz ere jaistea, horrela Ihurre-erdigunea lotura ahalbidetuz.
- GO 04 Ataun-Beasain lineak, Lazkaon geldialdia egitean Olaberriako erdigunera igo eta berriz ere jaisteko aukera Lazkao-erdigunea lotura maiztasun handiagoarekin lotuz, eta erdigunetik Beasainera zuzenean joateko aukera emanaz.
- GO 24 Lazkao-erdigunea linearen maiztasuna handitu, eta Ihurre zein Beasainekin lotzeko aukera baloratu.
- Eskaripeko zerbitzua aintzat hartzea, eredu mixtoa ere egokia izan daiteke. Linea finko batzuk hobetzea, eta beste batzuk eskaripeko aukerapean izatea.
- Egunean 5-7 zerbitzuko maiztasuna egotea aipaturako ibilbideetan
- Beasaingo tren geltokira iristea eta tren zerbitzuarekin koordinatzea
- Eskaripeko zerbitzua Erdigunea Ihurrerekin lotuz, Beasainera iristeko, eta Lazkaora doan linearen maiztasuna handitzea.
- Gutxieneko linea finkoa Beasainera

5- AMAIERA

Auzokideei hurrengo urratsak gogorarazi zaizkie. Hurrengo astean autobus zerbitzua ematen duen enpresarekin bilera bat egingo dela eskaerak baloratu eta aukera posibleak zehazteko. Eta, bi aste barru beste bilera erronda bat egingo dela Ihurre eta erdiguneko herritarrekin, aukera egokienak baloratu eta lehenesteko.

Aitor Urkiola mugikortasun zinegotziak eskerrak eman dizkie bertaratutako herritarrei eta arratsaldeko 19:45etan amaiera eman zaio bilerari.